

Arautegia

- ZEBERIO HARANA Mendi Martxa AUSTARRI Mendi Klubak antolatzen du eta ez du norgehiagoka izaerarik.
- ZEBERIO HARANA Mendi Martxa apirilaren **25ean** izango da. Ibilaldi luzea, 43 Kmkoa eta +2400 desnibelekoa izango da. Ertaina, 25 km., eta +1300 desnibelekoa. Laburra, 15 km-, eta +600 desnibela.
- Martxa luzearen gehieneko iraupena **11** ordukoa izando da, eta gutxieneko denbora **6** ordukoa izando da. Ertaina, 7 ordu gehienez. Laburra, 5 ordu...
- Martxa, adin guztietako pertsonentzat zuzenduta dago.
- Martxa luzea goizeko **7:00etan** hasiko da, ertaina **9:00etan**, eta laburra **10:00etan**, Zubialde plazatik, bertan ere amaitzeko.
- IBILBIDE luzea : Zeberio (125m)-Piku Bikotx (616m)- Garaigorta (662)-Aibelabe (638)-Arrugaeta (669)-Untzueta (770)-Artanda (550)-Upo(573)-Tontorrandi (522)-Mandoia (638)-Argiñaoko Atxa (524)- Zeberio (125m.)

IBILBIDE ertaina : Zeberio (125m)-Mintegi (272m)- Upo (573)-San Segismundo (407)-Tontorrandi (522)-Mandoia (638)-Argiñaoko Atxa (524)- Zeberio (125m.)

IBILBIDE laburra : Zeberio (125m)- Mandoia (638)-Argiñaoko Atxa (524)- Zeberio (125m.)

- ZEBERIO HARANA Mendi Martxa, EUSKAL HERRIKO IRAUPEN LUZEKO IBILALDIEN ZIRKUITUan sartuta dago.
- **Izen-ematea:** Martxoaren 2tik Apirilaren 20ra, <http://www.zirkuitua.com>. ATERATZEKO EGUNEAN: 6etatik 6,30etara martxa luzerako; 8etatik 8,30etara-martxa ertain eta laburrerako (400 bete ez badira aurretik). Beharrezkoak:izen-abizenak, NAN, Feder. txartela (federatuta dagoena),... Ordainketa: **15 €** federatuentzat eta **18 €** ez federatuentzat; martxako egunean 17-20 €. Ez dira 400 parte-hartzaile baino gehiago onartuko. Dorsalak, goizeko 6etatik 7ak arte (luzea), eta 8etatik 9ak arte (ertaina eta laburra) eskuratuko dira.
- Ibilbideak behar bezala markatuta egongo dira.
- Ibilbidearen zehar, jan eta edan-guneak izango dira: Adaro, Kortatxi, Upo, Argiñao eta helmugan.
- Parte hartzaileek ibilaldian zehar jarritako kontrol postu guztietatik igaro beharko dute, eta irteeran jasotako dorsala erakutsi.
- Proba hasitakoan ibilaldia uztea erabakitzen duten parte-hartzaileek iritsi diren azken kontrolean edo 656415597-665735054 telefonoetara deituta eman beharko dute hartutako erabakiaren berri.
- Ibilbidea bukatzen duten guztiei diploma eta oparitxo bana emango zaie.
- Zubialdeko Frontoian dutxa hartu ahal izango da.
- Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen parte-hartzaileei proban gerta lekizkiekeen istripuak. Partaideek, bere aldetik, uko egiten diote antolakuntzari erreklamaziorik edo kalteordainketarik eskatzeari.
- Federatuta egotea gomendatzen da.
- Anbulantzia gehi osasun mediku zerbitzua izando da ibilbidearen zehar.
- Antolakuntzak, arrazoi klimatikoak direla-eta hala iritzita, proba bertan behera utzi edo ibilbidea aldatu ahal izango du.

Izena eman duen pertsona oro jakitun da inskripzio formularioan ageri diren datuak datu pertsonalen fitxategien barne geratuko direla eta antolakuntzak soilik erabili ahal izango dituela ibilaldian parte-hartzaileen kudeaketa egoki egin ahal izateko eta AUSTARRIk Instagramen partehartzaileen zerrenda argitaratu ahal izateko. Informazio hau ematean, parte-hartzaileak aipatutako datu-tratamendua egiteko onespina ematen du.

Izena emateak araudi hau onartzea dakar.